

UDALEKU IREKIAK 2018

- 1) Norentzat: 2008 eta 2014 ute bitartean jaiotako umeentzat. Talde bitan: Txikiak (2013 eta 2014) eta Handiak (2008-2012).
- 2) AMETX TXARTELA ume txartela bezala aktibatuta izatea derrigorrezkoa da izena emateko.
- 3) 4 aste eskaintzen dira aukeran:
Asteak (aukeran):
 1. astea: ekainaren 25tik 29ra
 2. astea: uztailaren 4tik 8ra
 3. astea: uztailaren 9tik 13ra
 4. astea: uztailaren 17tik 20ra
Ordutegia (aukeran):
 - A.- 9:00 – 13:00 35 € asteko
 - B.- 9:00 – 15:00 75 € asteko (jantoki zerbitzua barne)
- 4) Onartuen zerrendetan lehentasuna izango dute Amorebieta-Etxanon erroldatuek. Horrela, eskari-kopurua eskaintako plaza-kopurua baino handiagoa bada, kanpoko biztanleak azkenak izango dira zerrendetan.
- 5) Plaza mugatuak. Matrikulazio gehiegi izan ezkererantz zozketaz esleituko dira plazak. Behin betiko zerrenda maiatzaren 15ean argitaratuko da.
- 6) NEBA-ARREBAK: Zozketa egiterakoan zenbaki bakar batekin parte hartuko dute izen-emate orri bakar baten izena eman badute.
- 7) Izena emateko epea: 2018ko apirilaren 23tik maiatzaren 11ra Gazte Informazio Bulegoan. Ordutegia: 10:00 – 13:00 eta 17:00 – 20:00.
- 8) Ordainketa egiteko modua: kreditu txartela. Inskripzio orria betetzean asteko 10 €-ko fidantza ordainduko da. Ordainketa osoa behin betiko zerrendak argitaratzen direnean ezartzen den epean egingo da.
- 9) Prezioak eta deskontuak.
Astebete A taldean: 35 €
Astebete B taldean: 75 €
Prezio ordenantzaren arabera
- 10) Itzulketak. Izena emateko epea bukatuta ez da dirurik itzuliko hurrengo egoeretako bat ematen ez bada (beti ere idatziz eskatuta eta dagokion dokumentuak aurkeztuta): a) gaixotasun edo istripu larria (medikuaren ziurtagiria) edo b) udalekuetara etortzea eragozten duten ustekabeak edo beharizan larriak, justifikatuta. Behin udalekuak hasita diru itzulketa arazo larriren bat suertatzen bada baino ez da bueltatuko, eta disfrutatuz ez diren egunen kopuru proportzionala soilik.
- 11) Udalekuak Larrea ikastetxeko egoitzetan eta udal kirol eta kultura egoitzetan garatuko dira onartzen den programaren arabera.
- 12) Informazio batzarra. Ekainean izango da eta bertan udalekuetako programaren zehaztasun guztiak emango dira: ekintzak, irteerak, ekarri eta jakin beharrekoak, eta abar.
- 13) Deialdi honetan ematen diren informazioa eta datu pertsonalak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen babespean egongo dira.
- 14) Beharizan bereziak dituzten umeak. 5 plaza daude, horrek baino gehiago izango balira zozketa batez esleituko dira plazak. Minusbaliotasun psikikoa duten umei udalekuetan parte hartzeko 2 urteko marjina emango zaie.